

BERGARAKO UDALAREN ETA JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, ALGARAKA EUSKAL HERRIKO I. BAKARRIZKETA LEHIAKETAREN 2024KO EDIZIOA DIRUZ LAGUNTZEKO

Begaran, 2024ko maiatzaren 8an.

BILDURIK


Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Udal Idazkaria den M^a Concepcion Ugalde andrea.

Bestetik, MIREN ETXEBERRIA JAUREGUI andrea, 72313638M NAN zenbakiduna eta G20339107 IFZ eta egoitza ERROTALDE JAUREGIAN duen JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN izenean eta ordezkartzan.

Miren Etxeberria Jauregui andreak zinpean alkatearen aurrean aitortu ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debekuko kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta, bi aldeek elkarri aitortu diote behartzeko gaitasuna eta, hala, honako hau

ADIERAZI DUTE:

1. Jardun Euskara Elkarteak Euskal Herriko I. Bakarrizketa Lehiaketa antolatuko duela 2024ko maiatzaren eta egitaraua, 35.795,00 €-ko aurrekontuarekin batera, aurkeztu ondoren, Udalari laguntza eskatu diola.
2. Bergarako Udalak positiboki baloratzen duela Bakarrizketa Txapelketa, Euskal Herri mailan aurretik horrelakorik ezagutzen ez den ekimena delako, eta berez, euskal kulturari ekarpen interesgarria egingo dion proiektua da, euskara eta umorea lantzeko teknikak lantzeko beste modu batzuk hausnartzeko ekarriko dituen eta bereziki, gazteen artean eragin zuzena izan dezakeena. Bestetik, Bergarako hirigunean jai giroa jarri, inguruko jendea erakarri eta antzerkia eta euskal testu ekoizpenari lotutako testuinguruan Bergararen izena zabaltzen duelako.
3. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 25. artikulua arautzen duela udalerriek, beren interesak kudeatzeko ahalmenaren eta beren eskumenen esparruan, herritarren eta herriko taldeen beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketelako jarduerak mota guztiak bultzatu eta behar adina zerbitzu publiko eman ditzaketela. Horrez gainera, arau horrek xedatzen duela udalerriek eskumena duela kultur jarduerak eta aisialdia antolatzeko.
4. Jardun Euskara Elkarte irabazteko asmorik gabeko elkarte dela, eta elkartearen helburuetako bat dela euskal kulturaren garapena eta ezagutaraztea.
5. Bergarako Udalak erabaki duela laguntza ematea, 12.000 €-ko diru-laguntza zuzena barne, eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.



Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

KLAUSULAK

Lehena.- Jardun Euskara Elkartek ALGARAKA Euskal Herriko I Bakarrizketa Lehiaketa antolatzeko konpromisoa hartzen du eta Udalari aurkeztu dion egitaraua aurrera eramango du (dokumentu honi eransten zaizkio aurkeztutako egitaraua eta aurrekontua, bi aldeek sinatuta).

Bigarrena.- Jardun Euskara Elkartearen betebeharra izango da hitzarmen honi erantsitako egitarauan jasotako ekintzak aurrera eramateko beharrezkoa den guztia egitea, ez badu Udalak espresuki hitzarmen honetan bere gain hartu, eta horretarako konpromisoa hartzen du Jardun Euskara Elkartek.

Hirugarrena.- Egitarauan zehaztutako lana burutzeko 10.000 €-ko diru-laguntza emango dio Bergarako Udalak Jardun Euskara Elkarteari.

Diru-laguntza hori bi zatitan ordainduko zaio.

Lehen zatia, %60 (6.000 €), Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekiko betebeharretan Jardun Euskara Elkartea egunean dagoela egiaztatu eta hitzarmen hau sinatu ondoren. Horretarako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu edo udalari baimen espresoa eman Bergarako udalak egiaztapena egiteko.

Bigarren zatia, %40 (4.000 €), jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu Jardun Euskara Elkartek.

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea udalak prestatutako inprimakia erabilita.
- b. Balantzea izandako diru-sarrera eta gastuak jasotzen dituen eta elkarteko ordezkariak sinatuta (izen abizenak eta NAN zenbakia adieraziz)
- c. Aurrekontuarekiko desbideratze esanguratsuak
- d. Gastuen zerrenda sailkatua eta ekintzaren antolaketa sortutako gastuen justifikazioa fakturak eta ordainketa agirien kopiak aurkeztuta.
Fakturak edo ordainagiriak Jardun euskara elkartearen izenean aurkeztu behar dira. Ordainagirien kasuan dirua jaso duenaren izen abizenak, NAN zenbakia eta diru kopurua zehaztu behar dira.
- e. Diru-sarreraren zerrenda sailkatua.
- f. Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, etab.).
- g. Jardueraren balorazioa.
- h. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo -laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.
- i. Faktura, agiri edo errezeboen kopiak eta horien ordainketa agirienak ere bai.
- j. Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak, era arrazoituan udalari agiri horiek eskatzeko baimena ukatu bazaio.



Dirulaguntzaz gain Udalak bere gain hartzen ditu ondorengo premiak: Seminarixoan ekitaldiak burutzeko azpiegitura teknikoa eta udaleko kultura langileen elkarlana.

Hirugarrena.- Jardun Euskara Elkarteak arduratuko da Lehiaketaren bestelako premia teknikoek, publizitateaz, produkzio lanez eta Bakarriketa Lehiaketa antolakuntzaz. Jardun Euskara Elkarteak Bakarriketa Lehiaketa honen inguruan egindako publizitatean Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du.

Justifikatutako gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa balitz, Udalak eskatu ahal izango du diru-laguntzaren zati bat itzultzea Jardun Euskara Elkarteari entzunaldia eman ondoren. Gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, ordea, Udalak ez du diru-laguntza berririk emango.

Udalak diru-laguntza zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da. Jardun Euskara Elkarteak diru-sarrera eta gastuen faktura eta dokumentu original guztiak gutxienez lau urtean kontserbatuko ditu. Epe horretan, Bergarako Udalak horrela erabakiz gero, dokumentu horiek aztertu ahal izango ditu.

Gutxienez 6 urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

Laugarrena. Jardun Euskara Elkarteak ondorengoak betetzeko konpromisoa hartzen du.

- Genero ikuspegia txertatuko du eta bereziki zainduko du komunikazio ez-sexista bideratzeko irizpideak aplikatzea.
- Amaieran egitasmoaren memoria aurkeztuko du. Bertan datuak, balorazioa, hobetzekoak... jasoko dira.

Bosgarrena.- Udalaren arduragatik ez diren arrazoiren batengatik gerta daiteke Udalak udal azpiegiturak erabiltzeko baimena bertan behera utzi edo murriztu beharra izatea. Era berean, aurkeztutako emanaldien ordutegiak gorabeherak izan ditzakete, eta Gobernuak emandako unean uneko dekretuei eta aginduei loturik egongo dira. Kasu horietan ez du udalak kalteordainik ordainduko.

Seigarrena.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharrerako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-ekarpenak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua,



uztailaren 21ekoa, Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan.



ALKATEA
Gorka Artola Alberdi

UDAL IDAZKARIA
Mª Concepcion Ugalde

JARDUN EUSKARA ELKARTEA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA
Jauregia 7/g
20570 BERGARA
9-13 76 33 61 / 605 712 469
f. rd.0210n@euzkara.eus
www.euzkara.eus

EGITARAUA

Lehiaketak honako ezaugarri nagusiak izango ditu:

- Lehiaketaren helburu nagusiak euskara (batez ere ahozketasuna) sustatzea, euskarazko sormena bultzatzea, euskal sortzaileei plaza eskaintzea eta euskarazko kulturari ekarpena egitea izango dira.
- Lehiaketa irekia izango da, nahi duen orok parte hartzeko.
- Lehiaketaren zabalpena eta izen ematea apirilean egingo da. Lehiaketak berriz hiru fase nagusi izango ditu:

1. fasea: AURRE-KANPORAKETA:

- o 2-3 minutuko bakarrizketa aurkeztu beharko da aurrez adierazitako izen-ematearen bidez.
- o Izen-ematean jasotako 2-3 minutuko lanak baloratuko ditu epaimahaiak
- o 12 lehiakidek egingo dute aurrera eta zuzeneko saioetara pasako dira (11 epaimahaiak aukeratuko ditu eta 1 publikoak bozketa bidez)

2. fasea: ZUZENeko KANPORAKETA SAIOAK

- o 3 zuzeneko kanporaketa-saio egingo dira. (maiatzak 10 Bergaran, 17 Urretxun eta 24 Zumaian)
- o Bakoitzean 4 lehiakidek parte hartuko dute.
- o Bertan 6-8 minutuko bakarrizketa egin beharko dute publikoaren aurrean.
- o Zuzeneko kanporaketa-saio bakoitzeko irabazlea finalera pasako da.
- o 3. saioaren amaieran jakinaraziko da zeintzuk diren finalera pasa diren lehiakideak.

3. fasea: FINALA: MAIAIATZAK 31 BERGARAN

- o 5 lehiakidek parte hartuko dute finalean
- o Zuzeneko kanporaketa bakoitzeko onena (3)
- o Saio guztiak kontutan hartuta publikoak online bozketaz aukeratutakoa (1)
- o Saio guztiak kontutan hartuta "Begarar onena" kategoriako irabazlea (1)
- o Bakoitzak 6-8 minutuko bakarrizketa aurkeztu beharko du publikoaren aurrean (kanporaketa saioko lan bera, moldatua edo berria izan daiteke).

Epaimahaia umoregintza munduko 3 kidez osatuta egongo da

Sariak: 1000€ lehenengoak, 600€ bigarrenak, 250€ bonoetan Begarar onenarentzat eta publikoaren saria Zumelaga jatetxean afari eta Lamariano Etxeberria nekazal etxean gaua eta gosaria.



AURREKONTUA

GASTUAK		SARRERAK	
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
BALIABIDE PERTSONALAK	11.115,00	DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOA	31.345,00
Antolakuntza orokorra, produkzio arduraduna, gidoilaria, errejidorea, argazkilaria...		Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza	
PROIEKTUAREN DISEINUA ETA PLANGINTZA	3.375,00	DIRU-LAGUNTZA PRIBATUA	2.000,00
Lehiaketaren diseinua, eskarriak (ikus-entzunezkoak, web gunea)			
EKOIZPENA	8.685,00	SAIOETAKO SARRERAK	2.450,00
Eszenografia, eskaleta, saioen grabaketa, muntaia eta desmuntaia...		2 kanporaketa eta finala	
KOMUNIKAZIOA eta ZABALKUNDEA	6.260,00		
Kartelak, esku-orriak, prentsa, publizitatea...			
BESTELAKOAK	6.360,00		
Aurkezlea, epaimahaia, sariak, profesionalen bakarrizketa, partaideentzat dietak, finaleko luntxa...			
GUZTIRA GASTUAK	35.795,00	GUZTIRA SARRERAK	35.795,00

Bergarako Udalari eskatzen dioguna: 14.318€ (%40)

